

LABek Aiaraldean enplegua defendatzea eta eskualdearen etorkizunerako inbertsioak eskatu ditu

Atzo Eusko Legebiltzarrean Aiaraldeko suspertze sozioekonomikoaren inguruko ponentzian parte hartu ostean, LABek argi utzi nahi izan du enplegua suntsiketa gelditzeko premiazko ekintzak eta eskualdearen etorkizuna bermatzeko neurriak behar direla.

Instituzio nagusiek urte luzez alde batera utzi dute Aiaraldea, eta eskualdearekin dagoen zorra kitatu behar dela uste dugu. Aiaraldearen etorkizunean inbertitu behar da, bai eskualdeak azken urte luzeetan jasan duen desindustrializazioa geldiarazi eta honi aurre eginez, bai sektore ezberdinetan: sektore publikoa, zaintza, lehen sektorea, merkataritza eta ostalaritza...

Enpresek eta langileek bizi duten egoera azaldu dugu, baita eskualdeko enpresa txiki eta ertainak eta autonomoek bizi duten errealitatea ere. Gazteek bizi duten egoera eta azken urteotan egon den inbertsio falta ere azpimarratu nahi izan ditugu.

Beharrezkoa da erakundeen konpromisoa eta inplikazioa, Aiaraldeko enplegu-suntsiketa gelditzeko eta egungo egoera iraultzeko. Onartezina da ezer ez egitea edo zikoizkeriagatik bakarrik mugitzen diren enpresa-zuzendaritzek enplegua suntsitzeko hartutako neurriak babestea. Aiaraldea ezin da enplegu gehiago suntsitu, berehalako konpromisoak eskatzen ditugu Aiaraldearentzat enplegu duina eta kalitatezkoa lortzeko.

Oinarritzko azpiegitura eta zerbitzu publikoetan inbertsioak egitea eskatzen dugu, hala nola osasunean, zaintzan, garraio publikoan edo saneamenduan. Murriztuta dauden zerbitzuak hobetu behar dira, eta zerbitzu desberdinak zabaldu, kalitatezko zerbitzu publikoak lortzeko.

Egoera kaxkarrean dagoen eskualdeko sare sozioekonomikoa ere bultzatu behar da, eta erakundeek helburu hori lortzeko neurriak hartu behar dituzte. Neurri horiek ekonomikoak ere izan behar dute, baina argi utzi nahi dugu ezin zaiela enpresei laguntzarik eman trukean ezer eskatu gabe, batez ere handiei. Enpresek laguntza publikoak edo zerga-salbuespenak jasotzen badituzte, kontrapartidak izan behar dituzte, hala nola enplegua mantentzea.

Azken finean, argi utzi nahi izan dugu Aiaraldea alerta gorrian dagoela, eta beharrezkoa dela dagoeneko eskualdearen etorkizunaren alde eta bertan enplegu eta bizimodu duina izatearen alde jardutea.

Laudion, 2021eko maiatzaren 13an